

Egilea: Nahia Sasieta Gorostidi

IZEN-ABIZENEZ EZAGUTZEN DITUGUN PERTSONAIK BAKARRIK AL DAUDE HISTORIAN?

Zer da protagonista izatea? Nortzuk dira? Zergatik dira protagonistak?

Protagonistak, Historian zehar gertatu diren gertaera garrantzitsuetan aktiboki parte hartu duten pertsonak dira. Esate baterako, gerra batean, protagonistak, gerran parte hartzen zutenak ziren eta baita etxean geratzen zirenak ere.

Historiak adibidez, baditu protagonistak, gehienetan erakusten direnak ordea, beti dira gerren irabazleak, buruzagiak, konkistatzaileak... eta hauek ia beti gizonezkoak izaten dira. Lehen esan dudan bezala, irakasten diren protagonistak gizonezkoak dira, esaterako, Kristobal Kolon nabigatzailea, Juan Sebastian Elkano marinel euskalduna, Konstantino Erromako enperadorea, Mehmed II Otomandar Inperioko sultana... Dena den, esango nuke izen-abizenik ez duten protagonista asko ere egon direla Historian zehar. Amaia Nausiak dioen bezala, “etxean, nekazaritzan, ekonomia kudeatzen eta horrelakoetan ibili ziren emakumeak ere protagonistak izan ziren, baina itzaleko protagonistak”. Nire ustez, gerra garaian gizonezkoak etxetik joaten zirenean, emakumeek ateratzen zuten familia eta etxea aurrera eta lan horri inoiz ez zaio eman merezi duen garrantzirik. Niretzat emakume horiek gerraren beste protagonista batzuk izan dira.

Historian zehar, emakume asko izan ziren protagonistak, horietako bat Marie Curie zientzialaria izan zen. Hala eta guztiz ere, hainbat emakume daude ezkutuko protagonistak izan zirenak eta Amaia Nausiari erreferentzia eginez, “ Aro Modernoaren eraikuntzan, oso bortitza izan zen emakumeen kontrako zapalkuntza ”. Emakumea Historian ahul bezala irudikatu da. Beti erakutsi izan zaie bete beharreko rol moduko bat, etxeke andrea izatea eta ama izatea. Rol hau betetzen ez zuten emakumeei, arriskutsuak zirela esaten zitzairen, gainera, oso modu negatiboan aipatu izan da emakumea Historian. Emakumeei beti ukatu izan zaie euren iragana, sinestarazi zaigu ez dugula ezertarako balio eta ondorioz, beti gutxietsi da emakumea.

Nire ikuspuntutik, emakumeak oztopo gehiago izan ditu bizitzaren edozein arlotan izen-abizeneko protagonista bezala ezagutzeko eta oztopo horiek gainditu izana lorpen handia dela kontsideratzen dut. Behar bada, ez al dira gure amonak, birramonak... gure herriaren protagonistak?

